



Mutrikuko Udala

134/2021 ALKATE EBAZPENA

Ikusirik Mutrikuko herriguneko hondartzako kantinaren eta komunen zerbitzuen kontratazio espedienteari hasiera ematen zion 2021eko maiatzaren 10eko 102/2021 Alkate Ebazpena.

Kontuan harturik kontratazio mahaiaren 2020ko ekainaren 2ko esleipen proposamena, non hurrenkerari jarraituz lehena Leire Sabaris andrea izan den, baina 2021eko ekainaren 3an uko egin dion esleipenari. Ondorioz, behin behineko bermea galdu eta exekutatu da. Adierazitako hurrenkeraren arabera Bingen Arrasate Arreitunandia jaunari dagokio esleipena.

Kontuan harturik kontratua esleitu aurretik esleipendunari errekerimendua egin zitzaiola, Administrazio-klausulen 9.aren arabera 10 egun balioduneko epean dokumentazioa aurkez zezan, eta agiriak behar bezala aurkeztu dituela.

Kontuan harturik esleipendunak 2.000,00 €ko behin betiko fidantza ezarri duela.

Kontuan harturik Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea eta Tokiko araubideari buruz indarrean dauden gainerako xedapenak,

EBATZI DUT

LEHENA.- Mutrikuko herriguneko hondartzako kantinaren eta komunen zerbitzuen bidezko kontratua Bingen Arrasate Arreitunandia jaunari esleitzea.

BIGARRENA.- Ordaindu beharreko kanona 13.820,00 €koa (hamahiru mila eta zortziehun eta hogeï euro) izango da.

HIRUGARRENA.- Esleipen honen iraupena 2021 eta 2022ko udako denboraldiak, eta bere kasuan, 2023rako luzapena.

LAUGARRENA.- Esleipendunak kontratua izenpetu aurretik kontratazio espedientearen aurreikusitako gainerako baldintzak bete beharko ditu.

BOSGARRENA.- Udalbatzari Ebazpen honen berri ematea burutuko duen hurrengo ohiko osoko bilkuran.

Mutrikun, 2021eko ekainaren 14an

ALKATEA

Joseba Palenzuela Arrieta



Mutrikuko Udala